

## **DIRU ITURRIAK**

Gure diru iturri nagusia bezeroei (enpresei) eskeinitako zerbitzuengatik jasotakoa da. Diru sarrera horiek enpresak sortuko dituen kostuak estaltzeko erabiliko dira lehenik eta behin. Lortutako mozkinak ordea, enpresa sortu dugun bazkideen artean banatuko dira dibidendu moduan, izan ere, Sozietate Anonimo bat sortuko dugu.

Hasiera batean, gure proiektuaren bizitzaren lehenengo urteetan, diru sarrerak mugatuak izango direla badakigu, izan ere, gure zerbitzuak ezagutarazteko eta bezeroak lortzen joateko denbora bat behar da. Behin bezeroak lortzen goazen ehinean, bezero horiek ahalik eta modu egokienean zaintzea dugu helburu. Gure bezeroekin konfiantzazko erlazio bat sortzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horrek bezero berriak ekarriko ditu, eta ondorioz, pixkana-pixkanaka gure diru sarrerak handituz joango dira.

Enpresa bakoitzak zerbitzu ezberdinak kontratatzeko aukera du eta gainera, zerbitzu horiek pertsonalizatuak izango direnez, zerbitzu bakoitzeko prezioa ezberdina izan daiteke enpresa bakoitzean. Hori dela eta, egindako kalkuluak espero diren batez besteko datuekin kalkulatu ditugu.

### **a. ESKAINITAKO ZERBITZUENGATIK LORTUTAKO DIRU SARRERAK:**

#### **1. Bezeroen urteko kuota:**

Gure bezeroek 300 euroko prezioa ordainduko dute urtean. Prezio horretan enpresako kideek eskeiniko ditugun 4 hitzaldi finko sartzen dira. Hitzaldi horiek enpresako kidean aldaketa klimatikoaren inguruan erantzunkizuna hartzea dute helburu. Urtean 10 enpresa lortzea espero dugu. Beraz,  $300 \times 10 = 3.000$  euro 4 hitzaldi horietaz gain beste hitzaldiak jaso nahi badituzte, aparteko prezioak ordainduko dituzte hitzaldi bakoitzeko.

## **2. Aparteko sentsibilizazio hitzaldiak (adituek egingo dituzten hitzaldiak)**

:

- 150 € hitzaldi bakoitzeko. - 5 hitzaldi x 10 enpresa x 150 €/hitzaldia =  
7.500€ urte bat izango balitz.

## **3. Formakuntza saioak:**

Formakuntza saio ezberdinak eskainiko ditugu. Batez beste, formakuntza saio bakoitzaren iraupena 40 ordukoa izango da. Eta orduko prezioa 100 eurokoa. Prezio horretan formakuntzan banatuko diren materialak sartzen dira. 20 formakuntza saio eskainiko ditugu, beraz,  $20 \times 40 \times 100 = 80.000 \text{ €}$

## **4. Aholkularitza zerbitzua:**

600 euro urtean. Zerbitzu honekin ingurugiroarekin eta kutsadurarekin erlazionatutako gai legalak argitzea dugu helburu. 12 enpresek zerbitzu hau eskatuko dutela espero dugu. Beraz,  $600 \times 12 = 7.200 \text{ €}$

## **b. GIZABANAKOEN EKARPENAK:**

Gure webgunean sail bat dago ekarpenak egiteko. Enpresa bakoitzak aukeratzen du donatzen duen diru-kantitatea. Arlo honetan 10.000 € jasotzea espero da.

## **c. EUSKO JAURLARITZAREN DIRU LAGUNTZAK:**

Eusko Jaurlaritza-ren Ingurugiro sailetik jasotako diru laguntzak: 3000 euro.

## **d. AJEBASK-en DIRU LAGUNTZAK:**

AJEBASK-ek 400€ ematen  
digu.

**e. BAZKIDEEN  
APORTAZIOAK:**

Bakoitzak 5000 euro jarriko ditu eta guztira 7 bazkide gara. Beraz, guztira  
35000€

7

**f. KAPITAL  
ZABALKUNTZA:**

Sozietate Anonimoa garenez, akzio berriak igortzeko aukera dugu. Guztira  
5.000€ jasotzea espero dugu akzio berriekin.

**DIRU SARRERA  
TOTALAK:**

151.100  
€